

IRITZIAK

Euskal iritzi publikoaren seihileko jarraipena
Seguimiento semestral de la opinión pública vasca



Uztaila – Abendua

2005

Julio – Diciembre

http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

KATALUNIAKO ETA EUSKADIKO ESTATUTU BERRIAK
LOS NUEVOS ESTATUTOS DE CATALUÑA Y PAÍS VASCO

EUSKADIKO AURREZKI KUTXEN BATERATZE HIPOTETIKOA
LA HIPOTÉTICA FUSIÓN DE LAS CAJAS DE AHORROS VASCAS

EUSKADIN BAKEA LORTZEA
LA CONSECUCCIÓN DE LA PAZ EN EL PAÍS VASCO

BEGIKOTASUN POLITIKOAK
SIMPATÍAS POLÍTICAS


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA
Dirección de Estudios y Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica



IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua

LABURPENA / RESUMEN

KATALUNIako ETA EUSKADIKO ESTATUTU BERRIAK LOS NUEVOS ESTATUTOS DE CATALUÑA Y PAÍS VASCO

Urrian EAEko herritarren gehiengoak (%88k) entzuna zuen zer edo zer Kataluniako Legebiltzarrean onartutako Kataluniako Estatutu Berriaren Proposamenaz eta berari buruzko berriak interesez jarraitzen zituen (%69k interes handia edo nolabaiteko interesa adierazi zuten). Azaroan interes hori apur bat jaitsi zen (%63ra).

Herritarren %36ek uste zuten Estatuko Gobernuak ez zela ari ondo kudeatzen Kataluniako Estatutuaren erreforma eta %21ek baietz uste zuten, baina talde garrantzitsu batek ez zekien edo ez zuten erantzun (43%).

Urrian egindako neurketan euskal biztanleen iritzia Katalunia nazio bezala onartzearen eta Estatutu Berriaren Proposamena Diputatuen Kongresuan onartzearen aldekoa zen. Batetik, %44k uste zuten Kongresuak nazio bezala onartu beharko lukeela, beste %35ek ezetz uste zuten bitartean. Beste aldetik, herritarren %60k gustuko lukete Estatutu Berria onartua izatea (%34k testuan aldaketarik sartu gabe eta %26k Kongresuak erabakitako aldaketekin), %16k ez lukete gustuko onartzea eta %6ri berdin zitzaizkien.

Kongresuan Kataluniarako Estatutu Berria onartzeak Euskadin izango litzukeen eraginei dagokienez, urrian herritarren %38k uste zuten eragin positiboa izango zukeela, soilik %8k negatiboa, %22k eragina positiboa edo negatiboa izango litzatekeela testuan izandako aldaketen arabera eta %13k ez zukeela eragingo. Aldiz, Kongresuak Estatutu Berriaren Proposamena atzera botako balu, soilik %11k uste zuten eragin positiboa izango zukeela Euskadin, %41eraino iristen zirelarik eragin negatiboa izango zukeela uste zutenak. Beste %29k uste zuten ez zukeela eraginik izango. Gai batean zein bestean %19k ez zuten iritzirik eman.

Zein proposamenak planteatzen duen autogobernuri handiena galdetzean iritzia dezente aldatu da urritik azarora. Urrian, gehiago ziren (%27) Kataluniako Estatutuak autogobernu handiagoa planteatzen zuela uste zutenak, Euskadiko Estatutuak autogobernu handiagoa planteatzen zuela uste zutenak baino (%12). Azaroan, aldiz, Euskadiko herritarren %24k uste zuten Euskadiko Estatutu Berriaren Proposamenak autogobernu handiago planteatzen duela Kataluniako Estatutu Berrirako Proposamenak baino, %14k antzekoa eta %12k autogobernu gutxiago emango liokeela. Dena dela, galdera hori erantzun ez zutenen kopurua handia zen aldi bietan (%38 urrian eta %49 azaroan).

Urrian herritarren iritzia bananduta zegoen Kataluniako alderdi politikoen Euskadikoekin baino akordiotara heltzeko gaitasun gehiago zutela uste zutenen (%39) eta antzeko gaitasuna zutela uste zutenen artean (%42); soilik %4k uste zuten alderdi katalanek gaitasun gutxiago zutela.

Gerora, azaroan, EAEko herritar gehienek (%94k) entzun zuten Diputatuen Kongresuak Kataluniako Estatutu Berria negoziatzea onartu zuela. Gehienek ondo zeritzoten negoziatzea onartzeari (%62k), %13k txarto eta beste %9k ez ondo ez txarto; gainontzeko %17k ez zuten erantzun.

En octubre la mayoría de la ciudadanía de la CAPV había oído hablar de la Propuesta de Nuevo Estatut de Catalunya aprobada en el Parlamento Catalán (88%) y seguía con interés las noticias en torno a ello (un 69% demostró mucho o algún interés), interés que descendió algo en noviembre (63%).

El 36% de la ciudadanía consideraba que el Gobierno del Estado no estaba gestionando bien la reforma del Estatut de Catalunya y el 21% creía que sí, aunque un colectivo importante no sabía o no contestaba (43%).

En la medición de octubre, la opinión de la población vasca era favorable al reconocimiento de Catalunya como nación y a que la Propuesta de Nuevo Estatut fuera aprobado en el Congreso de los Diputados. Por un lado, el 44% consideraba que el Congreso debería reconocerla como nación mientras el 35% consideraba que no. Por otro lado, al 60% le gustaría que el Nuevo Estatut fuera aprobado (al 34% sin variaciones en el texto y al 26% con los cambios que realice el Congreso), al 16% le gustaría que no fuera aprobado y al 6% le era indiferente.

Respecto a la influencia que la aprobación del Nuevo Estatut en el Congreso pudiera tener en el País Vasco, en octubre el 38% consideraba que influiría positivamente, sólo el 8% que influiría negativamente, el 22% que influiría negativa o positivamente según los cambios introducidos en el texto y el 13% que no influiría. En cambio, sólo el 11% creía que si el Congreso rechazara la Propuesta de Nuevo Estatut, esto influiría positivamente, mientras llegaban hasta el 41% quienes creían que influiría negativamente. El 29% consideraba que no influiría. Tanto en una cuestión como en la otra el 19% no opinó.

Las opiniones con respecto a qué propuesta plantea mayor autogobierno han variado de forma notable entre octubre y noviembre. En octubre eran más (27%) quienes creían que el Estatut para Catalunya planteaba un mayor autogobierno, que quienes creían que era el Estatut para el País Vasco el que planteaba un mayor autogobierno (12%). En noviembre, en cambio, el 24% de la ciudadanía vasca consideraba que la Propuesta de Nuevo Estatut para el País Vasco plantea un mayor autogobierno que la Propuesta de Nuevo Estatut para Catalunya, un 14% que plantea el mismo autogobierno y un 12% que plantea menor autogobierno. En cualquier caso, las cifras de no respuesta son elevadas en ambos periodos (38% en octubre y 49% en noviembre).

En octubre la opinión ciudadana se encontraba dividida entre quienes consideraban que los partidos políticos catalanes eran más capaces de llegar a acuerdos que los partidos vascos (39%) y quienes creían que eran igual de capaces (42%); sólo el 4% consideraba a los partidos catalanes menos capaces.

Más adelante, en noviembre, la mayoría de la población de la CAPV (94%) había oído algo respecto a que el Congreso de Diputados aceptó negociar el nuevo Estatut para Catalunya. A la mayoría le pareció bien (62%) que se aceptara negociar, al 13% mal y a otro 9% ni bien ni mal; el 17% restante no contestó.

IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua

Aldiz, Diputatuen Kongresuak pasa den otsailan Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Estatutua negoziatu gabe atzera botatzeari txarto deritzote herritar gehienek (%64k), ondo %11k eta beste %8k ez ondo ez txarto; berriro ere, %17k ez zuten erantzun.

Azkenik, Zapateroren Gobernuak Kataluniako Estatutuaren erreformaren inguruan egindako lana ondo baloratu dutenak gehiago dira txarto baloratu dutenak baino (%36k eta %21ek, hurrenez hurren). Euskadiko Estatutu berriaren inguruan Gobernuak egin duen lana, ordea, txarto baloratu dutenak ondo baloratu dutenak baino gehiago dira (%52k eta %16k, hurrenez hurren).

Por el contrario, el rechazo del pasado mes de febrero en el Congreso de Diputados a negociar el nuevo Estatuto Vasco es mal valorado por la mayoría de la ciudadanía (64%), bien por el 11% y otro 8% ni bien ni mal; nuevamente un 17% no contestó.

Por último, son más quienes valoran bien la actuación del Gobierno de Zapatero en relación a la reforma del Estatuto Catalán que quienes lo valoran mal (36% y 21%, respectivamente). Por el contrario, son más quienes valoran mal que quienes valoran bien la labor realizada en relación al nuevo Estatuto Vasco (52% y 16%, respectivamente).

EUSKADIKO AURREZKI KUTXEN BATERATZE HIPOTETIKOA LA HIPOTÉTICA FUSIÓN DE LAS CAJAS DE AHORROS VASCAS

EAEko herritarren hiru laurdenek (%74k) zer edo zer entzun zuten urrian Euskadiko aurrezki kutxen (hau da, BBK, Caja Vital eta Kutxaren) bateratze posible bati buruz eta erdiek baino apur bat gehiagok (%54k) interesarekin (interes handiarekin edo nolabaiteko interesarekin) jarraitu zituzten gai honekiko albisteak.

Euskadiko aurrezki kutxen bateratze hipotetiko horri dagokionez, herritarren %41ek adierazi zuten Euskadi osorako izen berria lukeen kutxa bakarra izatea nahiago zutela, beste %23k bakoitzak bere izena mantenduz eta funtzionamendu autonomoa izanez hiru kutxen arteko elkarte egitea nahiago zutela, beste %27k orain moduan hiru kutxa ezberdinak izaten jarraitzea nahiago zutela eta gainerako %10ek ez zuten iritzirik eman.

Herritarren %56ren iritziz, bateratzearen ondorioz sortuko litzatekeen kutxa berria lehiakorragoa izango litzateke eta %61en ustez onuragarria litzateke Euskadientzat. Azken zifra hori %54ra jaisten da lurralde historiko bakoitzarentzako onurei dagokienean, arabarrak bateratze horrek Arabarentzat leharren onurei buruz pesimistago agertu baitira.

Kutxen bateratzea gertatuz gero izaten dituzten gizarte-ekintzei dagokionez, ez dago iritzi nagusirik: %39k Euskadi mailan gizarte-ekintza gehiago egingo liritekeela uste dute eta %38k orain beste egingo liritekeela deritzote, bestalde %9ren ustez gutxiago egingo liriteke. Zifrak antzekoak dira lurralde historiko mailan egingo liritekeen gizarte-ekintzei dagokienak: %37ren ustez kutxak bateratuko balira euren lurraldean gizarte-ekintza gehiago egingo liriteke, %38ren ustez orain beste egingo liriteke eta %11ren iritziz gutxiago egingo liriteke. Berriro ere, arabarrak pesimistago agertu dira gai horretaz.

Arabako Caja Vitalak kutxen bat egitea atzera botatzeari buruzko balorazioari dagokionez, %22k ondo ikusten zuten jarrera hori, beste %22k ez ondo ez txarto zeritzoten eta gehiago ziren (%34) txarto ikusten zutenak; bestalde gainerako %23k ez zuten iritzirik eman. Aipatzekoa da arabarren artean ondo zeritzotenak %41 zirela.

Azkenik, Euskadiko aurrezki kutxen bat egitea bultzatzeko edo atzera botatzeko orduan nagusitu behar diren interesak ekonomikoak eta sozialak izan behar direla zioen jendeak (%87k eta %88k, hurrenez hurren), eta ez interes politikoak (bakarrik %25ek zioten horrelako interesak hartu behar direla kontuan).

Tres cuartas partes de la ciudadanía de la CAPV (74%) oyó hablar en octubre de la posible unión de las cajas de ahorro vascas (BBK, Caja Vital y Kutxa) y algo más de la mitad (54%) siguió con interés (mucho o algún interés) las noticias sobre este tema.

En relación a esa hipotética unión de las cajas de ahorro vascas, el 41% de las y los ciudadanos señalaban que preferían la existencia de una caja única con un nuevo nombre para toda la CAPV, otro 23% se decantaba por una asociación entre las tres cajas pero que cada una conservara su actual nombre y un funcionamiento autónomo, otro 27% decía preferir seguir como hasta ahora, con tres cajas diferentes, mientras que el 10% restante no emitía ninguna opinión.

A juicio del 56% de las ciudadanas y ciudadanos la nueva caja fruto de la unión sería más competitiva y para un 61% sería beneficiosa para el País Vasco, cifra que bajaba al 54% al hacer referencia a los beneficios para cada territorio histórico, debido al mayor pesimismo de los alaveses y alavesas en cuanto a los beneficios que ello reportaría para Álava.

Las opiniones se encontraban divididas en relación a las obras sociales que realizan las cajas en caso de producirse la unión: un 39% pensaba que las obras sociales a nivel del País Vasco se incrementarían y un 38% que permanecerían igual, frente a un 9% que opinaba que disminuirían. Las cifras son similares al preguntar por las obras sociales a realizar en cada territorio histórico: un 37% creía que si se produjera la unión de las cajas las obras sociales en su territorio se incrementarían, un 38% creía que seguirían igual y un 11% pensaba que disminuirían. Nuevamente se constataba el mayor pesimismo de las y los alaveses en este tema.

En cuanto a la valoración de la actuación de la Caja Vital de Álava al rechazar dicha unión, un 22% veía bien esta postura, otro 22% ni bien ni mal y eran algunos más (34%) quienes lo veían mal; el 23% restante no dio ninguna opinión. Es destacable el caso de las y los alaveses, entre los cuales quienes juzgaban bien esta postura se elevaban hasta el 41%.

Finalmente, la ciudadanía señalaba que a la hora de impulsar o rechazar la unión de las cajas vascas deben primar intereses económicos y sociales (en opinión del 87% y 88%, respectivamente) y no intereses políticos (únicamente un 25% creía que deben tenerse en cuenta los intereses políticos).

IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua

EUSKADIN BAKEA LORTZEA LA CONSECUCCIÓN DE LA PAZ EN EL PAÍS VASCO

EAEko herritarren gehiengoak (%79k) hurrengo urteetan Euskal Herrian bakea lortuko den itxaropena dauka. Beste %13k, aldiz, ez dute horren itxaropenik. Biztanleriaren bake itxaropena gehitu egin da azken hilabeteetan.

Bakearen alde gehien egiten ari dena nor den galdetutakoan, ezer iradoki gabe herritarrek emandako erantzunak hauexek dira: %22k uste dute inork ez duela ezer egiten, %13k diote Eusko Jaurlaritza edo Ibarretxe direla ahalegin handienak egiten ari direnak, %11k herritarrek aipatu dituzte, %9k alderdi guztiak, %6k Espainiako Gobernua edo Zapatero eta beste %6k EAJ. Oso gutxi aipatu dituzte ezker abertzalea (%4k), PSE-EE (%2k), ETA (%1ek), PP (%1ek) edo beste alderdi batzuk (%1ek). Gainera beste %6k bestelako erantzunak eman dituzte eta %5ek ez dute iritzirik eman.

Azken bi urteetan ETAK atentatueta heriotzarik ez duela eragin eta horren zergatia galdetuta, herritarren erantzunak honela banatu dira: %17k uste dute ETA ahul dagoelako dela, %23k ETAK lagundu nahi duelako itenbideak bilatzen, %23k aurreko bi arrazoi horietatik eta %7k beste arrazoi batzuetatik (horien artean bakarrik PSOE Estatuko Gobernura iritsi izana heldu da %1era). Gainontzeko %32k ez dute erantzunik eman.

Herritarren erdiak baino zertxobait gehiagok (%52k) ETAK hurrengo hilabeteetan su-etena iragarriko duen itxaropena daukate, %25ek ez daukate horrelako itxaropenik eta gainontzeko %23k ez dakite edo ez dute erantzunik eman.

La mayoría de la población de la CAPV (79%) tiene esperanza en que en los próximos años se consolide la paz en el País Vasco. Otro 13%, en cambio, no confía en ello. La esperanza de paz de la ciudadanía se ha incrementado en el último mes.

Al cuestionar quién está haciendo más esfuerzos para lograr la paz, las respuestas espontáneas de las y los ciudadanos son las siguientes: un 22% dice que nadie está haciendo nada, un 13% dice que quienes están haciendo más esfuerzos son el Gobierno Vasco o Ibarretxe, un 11% menciona a la ciudadanía, un 9% a todos los partidos, un 6% al Gobierno español o Zapatero y otro 6% al PNV. Son muy pocos quienes mencionan a la izquierda abertzale (4%), al PSE-EE (2%), a ETA (1%), al PP (1%) o a otros partidos (1%). Además otro 6% da otras respuestas diferentes y un 5% no emite ninguna opinión.

Preguntada la ciudadanía sobre las razones por las cuales ETA no ha realizado atentados con víctimas en los últimos dos años, las respuestas son las siguientes: un 17% cree que se debe a la debilidad de ETA, un 23% a un gesto de ETA para propiciar la búsqueda de soluciones, otro 23% a ambas razones anteriores y otro 7% a otras razones (entre las cuales únicamente la llegada del PSOE al Gobierno del Estado alcanza el 1% de mención). El restante 32% no da ninguna respuesta.

Algo más de la mitad de las ciudadanas y ciudadanos (52%) confía en que ETA declare una tregua los próximos meses, un 25% no confía en ello y el 23% restante no sabe o no contesta.

BEGIKOTASUN POLITIKOAK SIMPATÍAS POLÍTICAS

Neurketa guztietan EAEko biztanleen begikotasunik handiena duen alderdia EAJ da. PSE-EE jaitsi da 2004tik hona baina, hala eta guztiz, aurreko urteetatik gora jarraitzen du. EHAk begikotasuna lehenengo aldiz neurtu da 2005ean. Begikotasun horrek jaitsiera handi xamarra izan du lehenengo neurketan baina bigarrenako Ezker Abertzaleko taldeek azken urteotan izandako maila lortu du. EAK azken urteotako mailarik onena izan du aurtengo lehenengo neurketan, baina bigarren neurketan bere ohiko mailara itzuli da. PPK azken urteotan daraman jaitsiera mantoan jarraitu du, eta gainerako alderdiek ez dute aldaketa nabarmenik izan 2005eko azken sei hilekoan. Beti bezala, aipatzekoa da alderdi politiko batekiko ere begikotasunik adierazi ez dutenen portzentaje altua (%21 eta %23, urrian eta azaroan, hurrenez hurren).

El partido que suscita mayores simpatías entre las y los ciudadanos de la CAPV en todas las mediciones es el PNV. El PSE-EE desciende respecto al nivel registrado en 2004 pero, aún así, se mantiene por encima de años precedentes. La simpatía hacia el PCTV se ha medido por primera vez en 2005. Esta simpatía ha bajado bastante en la primera medición pero vuelve a la posición habitual de las formaciones de la Izquierda Abertzale en los últimos años. EA ha obtenido en la primera medición de este año, su mejor posición de los últimos años, aunque ha vuelto a su nivel habitual en la segunda medición. El PP continúa su lento descenso de estos últimos años, y el resto de los partidos no experimenta cambios significativos. Como es habitual, destaca el alto porcentaje de personas (21% y 23% en octubre y noviembre, respectivamente) que dice no sentir simpatía por ningún partido político.

IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua

KATALUNIAKO ETA EUSKADIKO ESTATUTU BERRIAK LOS NUEVOS ESTATUTOS DE CATALUÑA Y PAÍS VASCO

Pasa den irailaren 30ean Kataluniako Parlamentuak Estatutu Berriaren proposamena onartu zuen. Entzun al duzu ezer Estatutu Berri horretaz?

El pasado 30 de septiembre el Parlamento catalán aprobó la Propuesta de Nuevo Estatut. ¿Ha oído hablar Ud. de este Nuevo Estatut?

	2005EKO URRIA OCTUBRE 2005
Bai / Sí.....	88
Ez / No.....	11
Ed-Ee / Ns-Nc.....	1
	100%

Oro har, nolako interesaz jarraitzen dituzu Kataluniarako Estatutu Berriari buruzko albisteak: interes handiaz, nolabaiteko interesaz edo batere interesik gabe?

En general, ¿con qué interés está siguiendo Ud. las noticias sobre el Nuevo Estatuto para Cataluña: con mucho interés, algún interés o ningún interés?

	2005EKO URRIA OCTUBRE 2005	2005EKO AZAROA NOVIEMBRE 2005
Interes handiaz / Mucho interés.....	17	14
Nolabaiteko interesaz / Algún interés.....	52	49
Batere interesik gabe / Ningún interés.....	17	32
Ez dut horretaz albisterik ikusi/entzun/irakurri <i>/ No he visto/oído/leído ninguna noticia sobre esto¹</i>	11	1
Ed-Ee / Ns-Nc.....	3	5
	100%	100%

Uste duzu Zapateroren Gobernuaren ondo gestionatzen ari dela Kataluniako Estatutuaren erreforma?

¿Cree Ud. que el Gobierno de Zapatero está gestionando bien la reforma del Estatuto catalán?


	EAE – CAPV 2005EKO URRIA OCTUBRE 2005	ESPAÑA / ESPAÑA ² 2005EKO URRIA OCTUBRE 2005
Bai / Sí.....	21	23
Ez / No.....	36	50
Ed-Ee / Ns-Nc.....	43	27
	100%	100%

Kataluniarako Estatutu Berriaren Proposamena indarrean jartzeko hurrengo pausua Diputatuen Kongresuan onartzea da. Hala ere Estatutu Berri horrek badauzka puntu eztabaidagarriak, esate baterako, Katalunia nazio dela dioen adierazpena. Zure ustez, Diputatuen Kongresuak onartu beharko luke Katalunia nazio bezala?

El siguiente paso para que la Propuesta de Nuevo Estatuto para Cataluña entre en vigor es su aprobación en el Congreso de los Diputados. Sin embargo, este Nuevo Estatut incluye algunos puntos polémicos como la declaración de que Cataluña es una nación. ¿Cree que el Congreso de los Diputados debería reconocer a Cataluña como nación?

	2005EKO URRIA OCTUBRE 2005
Bai / Sí.....	44
Ez / No.....	35
Ed-Ee / Ns-Nc.....	21
	100%

**Diputatuen Kongresuak Katalunia nazio bezala onartu beharko luke ?
¿El Congreso de los Diputados debería reconocer a Cataluña como nación?**



¹ ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.

² URRIAREN 4-6 BITARTEAN OPINA INSTITUAK EL PAÍS EGUNKARIAREN TAZTAN EGINDAKO TELEFONAZKO INKESTA / ENCUESTA TELEFÓNICA REALIZADA POR EL INSTITUTO OPINA PARA EL DIARIO EL PAÍS ENTRE LOS DÍAS 4 Y 6 DE OCTUBRE

IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila-Abendua


Zuri, pertsonalki, ondoko aukeretatik zein gustatuko litzaizuke gehien: Estatutu Berria aldaketarik gabe onartzea, hau da, Kataluniako Parlamentuak onartu zuen moduan onartzea, edo Kongresuak beharrezkotzat jotzen dituen aldaketekin onartzea edo nahiago zenuke ez onartzea?

A Ud. personalmente, de las siguientes opciones, ¿cuál le gustaría más: que el nuevo Estatut fuera aprobado sin variaciones, tal y como se aprobó en el Parlamento catalán, o que fuera aprobado pero con los cambios que el Congreso considerara necesarios o que no fuera aprobado?

2005EKO URRIA
OCTUBRE 2005

Aldaketa barik onartzea / Que fuera aprobado sin variaciones	34
Onartzea baina aldaketekin / Que fuera aprobado pero con cambios	26
Ez onartzea / Que no fuera aprobado	16
Berdin zait / Me es indiferente ¹	6
Ed-Ee / Ns-Nc	19

100%



Diputatuen Kongresuak Kataluniarako Estatutu berria onartzeak Euskadirentzat izango lituzkeen eraginei dagokienez, esadazu, mesedez, ondoko esaldietatik zeinekin zauden ados.

Respecto a la influencia que la aprobación del Nuevo Estatut para Cataluña en el Congreso de los Diputados pudiera tener en el País Vasco, dígame, por favor, con cuál de las siguientes opciones está Ud. más de acuerdo.

2005EKO URRIA / OCTUBRE 2005

Estatutu hori onartzeak beti ekarriko lituzke aldeko eraginak / Su aprobación siempre influiría positivamente	38
Onartzeak beti ekarriko lituzke kontrako eraginak / Su aprobación siempre influiría negativamente	8
Testuan sartutako aldaketen arabera eraginak aldekoak edo kontrakoak izan litezke / Influiría positivamente o negativamente según los cambios introducidos en el texto	22
Onartzeak ez luke eraginik izango / Su aprobación no influiría en ningún caso	13
Ed-Ee / Ns-Nc	19

100%

Eta Kongresuak Kataluniarako Estatutu berria atzera botako balu, zure ustez horrek Euskadirentzat aldeko eraginak izango lituzke, kontrako eraginak edo ez luke eraginik izango?

Y si el Nuevo Estatut para Cataluña fuera rechazado en el Congreso, ¿cree Ud. que ello influiría positivamente, negativamente o no influiría en el País Vasco?

2005EKO URRIA
OCTUBRE 2005

Aldeko eraginak izango lituzke / Influiría positivamente	11
Kontrako eraginak izango lituzke / Influiría negativamente	41
Ez luke eraginik izango / No influiría	29
Ed-Ee / Ns-Nc	19

100%

Zure ustez Kataluniako alderdi politikoek Euskadikoek baino gaitasun handiagoa, antzeko gaitasuna edo gaitasun txikiagoa dute akordioetara heltzeko?

¿Cree Ud. que los partidos políticos catalanes son más capaces, igual de capaces o menos capaces de llegar a acuerdos que los partidos políticos vascos?

2005EKO URRIA
OCTUBRE 2005

Gaitasun handiagoa / Más capaces	39
Antzeko gaitasuna / Igual de capaces	42
Gaitasun txikiagoa / Menos capaces	4
Ed-Ee / Ns-Nc	15

100%

Alde batetik Kataluniako Estatutu berria eta bestetik Euskadiko Estatutu berria aurrez aurre jarrita, zure ustez, zeinek planteatzen du autogobernurik handiena?

En su opinión, comparando el nuevo Estatut de Cataluña con el nuevo Estatuto para el País Vasco, ¿cuál de las dos propuestas plantea mayor autogobierno?

2005EKO URRIA
OCTUBRE 2005

2005EKO AZAROA
NOVIEMBRE 2005

Kataluniako Estatutuak / El Estatut catalán	27	12
Euskadiko estatutu berriak / El nuevo Estatuto vasco	12	24
Biek berdin / Ambos por igual ¹	23	14
Ed-Ee / Ns-Nc	38	49

100% 100%

*2005eko Urriar galdera hau modu honetan egin zen: "Zure ustez, Estatutu berri horrek Kataluniari Eusko Legebiltzarrak onartutako Estatutu berriaren Proposamenak Euskadiri baino autogobernu handiagoa, antzeko autogobernua edo autogobernu txikiagoa emango lioke?" La formulación exacta de esta pregunta en Octubre de 2005 era: "En su opinión, ¿este Nuevo Estatut daría a Cataluña más autogobierno, el mismo autogobierno o menos autogobierno que la Propuesta de Nuevo Estatuto aprobada por el Parlamento Vasco al País Vasco?"

IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua

Pasa den azaroaren 2an Diputatuen Kongresuak Kataluniako Autonomia Estatutu berria negoziatzea onartu zuen. Entzun al duzu ezer horretaz?

El pasado 2 de noviembre el Congreso de los Diputados aceptó negociar el nuevo Estatut de autonomía para Cataluña aprobado por el Parlamento catalán. ¿Ha oído Ud. hablar de ello?

2005EKO AZAROA
NOVIEMBRE 2005

Bai / Sí	94
Ez / No	5
Ed-Ee / Ns-Nc	1
	100%

Edozein kasutan, zer iruditzen zaizu Diputatuen Kongresuak Kataluniako Estatutu berri hori negoziatzea onartzea: ondo ala txarto?

En cualquier caso, ¿qué le parece a Ud. que el Congreso de los Diputados aceptara negociar ese nuevo Estatut para Cataluña: bien o mal?

2005EKO AZAROA
NOVIEMBRE 2005

Ondo / Bien	62
Ez ondo ez txarto / Ni bien ni mal ¹	9
Txarto / Mal	13
Ed-Ee / Ns-Nc	17
	100%


Euskadiko Parlamentuak onartutako Euskadiko Estatutu berria Diputatuen Kongresuak negoziatu barik atzera bota zuen pasa den otsailean. Zer iruditzen zaizu Kongresuaren erabaki hori: ondo ala txarto?

El pasado mes de febrero el nuevo Estatuto para el País Vasco aprobado por el Parlamento Vasco fue rechazado por el Congreso de los Diputados sin negociar. ¿Cómo valora Ud. esta decisión del Congreso: bien o mal?

2005EKO AZAROA
NOVIEMBRE 2005

Ondo / Bien	11
Ez ondo ez txarto / Ni bien ni mal ¹	8
Txarto / Mal	64
Ed-Ee / Ns-Nc	17
	100%

Kongresuak Euskadiko Estatutu berria atzera botatzearen balorazioa / Valoración del rechazo del Congreso al nuevo Estatuto para el País Vasco



Bestalde, nola baloratzen duzu Zapateroren Gobernuaren egiten ari dena Kataluniako Estutatuaren erreforman: ondo ala txarto?

Por otro lado, ¿cómo valora Ud. la actuación del gobierno de Zapatero en relación a la reforma del Estatuto catalán: bien o mal?

2005EKO AZAROA
NOVIEMBRE 2005

Ondo / Bien	36
Ez ondo ez txarto / Ni bien ni mal ¹	16
Txarto / Mal	21
Ed-Ee / Ns-Nc	28
	100%


Eta Euskadirako Estatutu berriari buruz egin zuena: ondo ala txarto?

¿Y en relación al Estatuto para el País Vasco: bien o mal?

2005EKO AZAROA
NOVIEMBRE 2005

Ondo / Bien	16
Ez ondo ez txarto / Ni bien ni mal ¹	9
Txarto / Mal	52
Ed-Ee / Ns-Nc	23
	100%

Zapateroren gobernuaren jardueraren balorazioa Kataluniako eta Euskadiko Estatutuen erreformetan / Valoración de la actuación del gobierno de Zapatero en las reformas de los Estatutos Catalán y Vasco



1 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.

IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua

EUSKADIKO AURREZKI KUTXEN BATERATZE HIPOTETIKOA LA HIPOTÉTICA FUSIÓN DE LAS CAJAS DE AHORROS VASCAS

Azkenaldian Euskadiko hiru aurrezki kutxak, hau da, Arabako Caja Vital, Bizkaiko BBK eta Gipuzkoako Kutxa bateratzeaz hitz egin da. Zuk zer edo zer entzun duzu bateratze posible horretaz?

Últimamente se ha hablado de una posible unión de las tres cajas de ahorro vascas, la Caja Vital de Álava, la BBK de Bizkaia y la Kutxa de Gipuzkoa. ¿Ha oído Ud. hablar de esta posible unión?

2005EKO URRIA
OCTUBRE 2005

Bai / Sí	74
Ez / No	26
Ed-Ee / Ns-Nc	0
	100%

Oro har, nolako interesaz jarraitzen dituzu Euskadiko hiru kutxen bateratze posibleari buruzko albisteak: interes handiaz, nolabaiteko interesaz edo batere interesik gabe?

En general ¿con qué interés está siguiendo Ud. las noticias sobre la posible unión de las tres cajas de ahorro vascas: con mucho interés, algún interés o ningún interés?


2005EKO URRIA
OCTUBRE 2005

Interes handiaz / Mucho interés	11
Nolabaiteko interesaz / Algún interés	43
Batere interesik gabe / Ningún interés	17
Ez dut horretaz albisterik ikusi/entzun/irakurri ¹ / No he visto/oído/leído ninguna noticia sobre esto ¹	26
Ed-Ee / Ns-Nc	2
	100%

Euskadiko aurrezki kutxen bateratze posible horri dagokionez, ondoko aukeretatik zein izango litzateke zure gustukoena?
Respecto a esa supuesta unión de las cajas de ahorro vascas, ¿con cuál de las siguientes opciones estaría Ud. más de acuerdo?

2005EKO URRIA
OCTUBRE 2005


Euskadi osorako izen berria lukeen kutxa bakar bat izatea / Una caja única con un nuevo nombre para toda la CAPV	41
Hiru kutxen arteko elkarrekin izatea, bakoitzak oraingo izena mantenduz eta funtzionamendu autonomoa izanez / Una asociación entre las tres cajas, pero que en cada provincia conservaran su nombre actual y tuviesen un funcionamiento autónomo	23
Orain arte moduan jarraitzea, hau da, hiru kutxa ezberdinak izatea / Seguir como hasta ahora, siendo tres cajas diferentes	27
Ed-Ee / Ns-Nc	10
	100%



1 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / ÉSTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.

IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua



Zure ustez, bateratze hori Euskadirentzat onuragarria izango litzateke, kaltegarria izango litzateke edo ez luke eraginik izango?

¿Cree Ud. que esa unión sería beneficiosa, indiferente o perjudicial para el País Vasco?

2005EKO URRIA
OCTUBRE 2005

Onuragarria izango litzateke / Beneficiosa	61
Ez luke eraginik izango / Indiferente	12
Kaltegarria izango litzateke / Perjudicial	8
Ed-Ee / Ns-Nc	19
	100%

Eta Arabarentzat / Bizkaiarentzat / Gipuzkoarentzat? ¹

¿Y para Álava / Bizkaia / Gipuzkoa? ¹

2005EKO URRIA / OCTUBRE 2005

	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA BIZKAIA	GIPUZKOA GIPUZKOA	EAE ² CAPV ²
Onuragarria izango litzateke / Beneficiosa	36	57	54	54
Ez luke eraginik izango / Indiferente	12	13	13	13
Kaltegarria izango litzateke / Perjudicial	27	6	12	11
Ed-Ee / Ns-Nc	24	23	21	22
	100%	100%	100%	100%

Kutxek gizarte-ekintzetarako ematen dituzte irabaziak, hau da, zaharren egoitzetarako, haurtzaindegietarako, aterpetxeetarako eta abarretarako. Zure ustez, bateratze hori egingo balitz, Euskadin gizarte-ekintza gehiago, orain beste edo gutxiago egingo lirateke?

Las cajas invierten sus beneficios en Obras Sociales, como residencias, guarderías, albergues, etc. ¿Cree Ud. que si se realizara esa unión las obras sociales a nivel del País Vasco se incrementarían, seguirían igual que ahora o disminuirían?

2005EKO URRIA
OCTUBRE 2005

Gehiago egingo lirateke / Se incrementarían	39
Orain beste egingo lirateke / Seguirían igual que ahora	38
Gutxiago egingo lirateke / Disminuirían	9
Ed-Ee / Ns-Nc	14
	100%

Eta Araban / Bizkaian / Gipuzkoan? ¹

¿Y en Álava / Bizkaia / Gipuzkoa? ¹

2005EKO URRIA / OCTUBRE 2005

	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA BIZKAIA	GIPUZKOA GIPUZKOA	EAE ² CAPV ²
Gehiago egingo lirateke / Se incrementarían	29	41	34	37
Orain beste egingo lirateke / Seguirían igual que ahora	33	36	42	38
Gutxiago egingo lirateke / Disminuirían	23	9	10	11
Ed-Ee / Ns-Nc	15	14	15	14
	100%	100%	100%	100%

¹ INKESTA EGIN ZEN LURRALDEAZ GALDETU ZEN / SE PREGUNTÓ POR EL TERRITORIO EN EL QUE SE HIZO LA ENCUESTA.
² LURRALDEETAKO DATUEN BATEZBESTEKOA / MEDIA DE LOS DATOS DE LOS TERRITORIOS

IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua


Euskadiko aurrezki kutxak batuko balira, zure ustez, kutxa berria bakoitza bere aldetik baino lehiakorragoa izango litzateke, berria oraingoak bezain lehiakorra izango litzateke edo ez litzateke hain lehiakorra izango?

Si las cajas de ahorro vascas llegaran a unirse, ¿cree Ud. que la nueva caja vasca sería más competitiva, igual de competitiva o menos competitiva que cada una por separado?

2005EKO URRIA
OCTUBRE 2005

Berria lehiakorragoa izango litzateke / Más competitiva.....	56
Berria oraingoak bezain lehiakorra izango litzateke / Igual de competitiva.....	13
Berria ez litzateke hain lehiakorra izango / Menos competitiva.....	9
Ed-Ee / Ns-Nc	23
	100%

**Kutxa berriaren lehiakortasunari buruzko iritzia /
Opinión sobre la competitividad de la nueva caja**



Arabako Caja Vitalek hiru kutxen bat-egitea atzera bota du oraingoz. Nola deritzozu Caja Vitalek bat-egitea atzera botatzeari, ondo ala txarto?

La Caja Vital de Álava ha rechazado por el momento la posibilidad de tal unión entre las tres cajas. ¿A Ud. le parece bien o mal que la Caja Vital haya rechazado esa unión?

2005EKO URRIA / OCTUBRE 2005

	EAE CAPV	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA BIZKAIA	GIPUZKOA GIPUZKOA
Ondo / Bien	22	41	21	14
Ez ondo ez txarto / Ni bien ni mal ¹	22	16	24	22
Txarto / Mal	34	25	33	39
Ed-Ee / Ns-Nc.....	23	17	22	26
	100%	100%	100%	100%

Euskadiko hiru aurrezki kutxen bat-egitea bultzatzeko edo ukatzeko (atzera botatzeko), zure ustez, ondoko interesetatik zeintzuk hartu behar dira kontuan eta zeintzuk ez?

A la hora de impulsar o rechazar la unión de las tres cajas de ahorro vascas, ¿cuáles de los siguientes tipos de intereses cree Ud. que se deben de tener en cuenta y cuáles no?

2005EKO URRIA / OCTUBRE 2005

	BAI SI	Ez NO	Ed-EE NS-NC
Interes ekonomikoak? / ¿Intereses económicos?	87	6	8
Interes politikoak? / ¿Intereses políticos?	25	60	14
Interes sozialak? / ¿Intereses sociales?	88	5	7
	100%	100%	100%

¹ ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.

IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua

EUSKADIN BAKEA LORTZEA LA CONSECUCCIÓN DE LA PAZ EN EL PAÍS VASCO

Hurrengo urteetan Euskal Herrian bakea lortzeko itxaropenik ba al duzu?

¿Tiene Ud. esperanza de que en los próximos años se consolide la paz en el País Vasco?

	2005EKO URRIA OCTUBRE 2005	2005EKO AZAROA NOVIEMBRE 2005
Bai / Sí	61	79
Ez / No	30	13
Ed-Ee / Ns-Nc	9	8
	100%	100%

Badira bi urte baino gehiago ETAREN atentatuek ez dutela biktimarik eragin. Zure ustez, zergatik da hori?

Ya han transcurrido más de dos años sin atentados de ETA con víctimas. ¿A qué cree que se debe esto?

	2005EKO AZAROA NOVIEMBRE 2005
ETA ahul dagoelako / A la debilidad de ETA	17
ETAK lagundu nahi duelako irtenbideak bilatzen / A un gesto de ETA para propiciar la búsqueda de soluciones	23
Arrazoi biengatik / A ambas razones	23
Beste arrazoiengatik / A otras razones	7
Ed-Ee / Ns-Nc	32
	100%


Zure ustez, bakea lortzeko nor egiten ari da esfortzurik handiena?¹

A su juicio, ¿quién está haciendo más esfuerzos para lograr la paz?¹

2005EKO AZAROA / NOVIEMBRE 2005

Inor ez / Bat ere ez (inolako alderdirik, gobernurik,...) / Nadie (ningún partido, ningún gobierno,...)	22
Eusko Jaurlaritzaren edo Ibarretxe / El Gobierno vasco o Ibarretxe	13
Herritarrak / La ciudadanía	11
Alderdi guztiak / Todos los partidos	9
Espainiako gobernu edo Zapatero / Gobierno español o Zapatero	6
EAJ/PNV	6
Ezker abertzalea (Batasuna,...) / Izquierda abertzale (Batasuna,...)	4
PSE-EE / PSOE	2
ETA	1
PP	1
Beste alderdi batzuk / Otros partidos	1
Beste erantzunak / Otras respuestas	6
Ed-Ee / Ns-Nc	5

**Hurrengo hilabetetan ETAK su-etenik iragarriko duen itxaropena /
Confianza en que ETA declare una tregua en los próximos meses**



Hurrengo hilabetetan ETAK su-etenik iragarriko duen itxaropenik ba al duzu?

¿Confía Ud. en que ETA declare una tregua en los próximos meses?

2005EKO AZAROA
NOVIEMBRE 2005

Bai / Sí	52
Ez / No	25
Ed-Ee / Ns-Nc	23
	100%

1 GALDERA IREKIA, INKESTATUEI EZ ZITZAEN ERANTZUN AUKERARIK ADITZERA EMAN ETA BI ERANTZUN EMAN AHAL ZITUZTEN / PREGUNTA ABIERTA. A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS NO SE LES SUGIRIÓ NINGUNA RESPUESTA Y PODÍAN DAR DOS.

IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua


BEGIKOTASUN POLITIKOAK SIMPATÍAS POLÍTICAS

Esango didazu Eusko Legebiltzarrean dauden partiduetatik zuk zein duzun gustukoena?
¿Me podría decir qué partido político con representación en el Parlamento Vasco le cae a Ud. mejor?

	2001 2001*	2002 2002*	2003 2003*	2004 2004*	2005 URR Oct 2005	2005 AZA Nov 2005
EAJ/PNV.....	27	22	20	21	21	25
PSE-EE.....	7	7	4	13	9	9
Ezker Batua (IU).....	6	4	2	5	4	6
EHAK / PCTV **.....	5	4	4	5	2	4
EA.....	4	4	3	3	5	3
PP.....	4	5	5	4	3	2
Aralar.....	-	-	5	2	2	2
Beste batzuk / Otros.....	0	0	0	1	1	1
Denak ikusten ditut ondo/ Todos igual de bien.....	3	2	1	2	1	2
Bat ere ez dut ondo ikusten / Ninguno me cae bien.....	21	25	25	23	21	23
Ed-Ee / Ns-Nc.....	24	27	32	26	30	24
	100%	100%	100%	100%	100%	100%

* Datu horiek garai horretan eginiko ikerketen emaitzetatik ateratako batezbestekoak dira: batezbestekoak egitean lehenengo dezimalaren borobiltzea egin da eta horregatik batuketa %100 baino altuagoa suerta daiteke / Estos datos son medias obtenidas entre los resultados de los estudios realizados en este período de tiempo; debido al redondeo del primer decimal efectuado al realizar las medias, la suma total puede ser diferente a 100%.

** Aurreko urteetan EH, Batasuna edo, zehaztu barik, ezker abertzaleko beste talde batzuei zegozkien erantzunak batzen ziren kategoria honetan / En años anteriores en esta categoría se recogían las respuestas correspondientes a EH, Batasuna u otros grupos de la izquierda abertzale sin especificar.



IRITZIAK - 10

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2005 Uztaila- Abendua

ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA

LEHENENGO LAGINALDIA (urriak 19-20) / PRIMERA OLEADA (19-20 de octubre)

EAEko 18 urte eta gehiagoko populazioari telefonoz egindako 1000 elkarrizketa (300 Araban, 400 Bizkaian eta 300 Gipuzkoan), 20na inkestako 50 bide aleatorioen bitartez, eta ondoren sexu, adin eta lan egoeraren arabera kuotak erabiliz elkarrizketatuak aukeratuz. Laginaren balizko errakuntza teorikoa $\pm 3,2$ koa litzateke, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta $p=q=0,5$ delarik. Datu bilketa 2005eko urriaren 19 eta 20 bitartean egin zen.

Espainiako Estatuko datuekin konparazioa egiteko, Opina Institutuak El País egunkariarentzat urriaren 4-6 bitartean egindako telefonozko inkestatik hartu dira datuak.

1000 entrevistas (300 en Araba, 400 en Bizkaia y 300 en Gipuzkoa) realizadas por teléfono a la población de 18 o más años de la CAPV a partir de 50 rutas aleatorias de 20 encuestas cada una, con selección posterior según cuotas de sexo, edad y situación laboral. El error muestral teórico hipotético sería de $\pm 3,2$ para un nivel de confianza del 95,5% y siendo $p=q=0,5$. La recogida de la información se realizó del 19 al 20 de octubre de 2005.

Para la comparación con los datos del Estado Español, se parte de una encuesta telefónica realizada por el Instituto Opina para el diario El País entre los días 4 y 6 de octubre.


BIGARREN LAGINALDIA (azaroak 21-22) / SEGUNDA OLEADA (21-22 de noviembre)

EAEko 18 urte eta gehiagoko populazioari telefonoz egindako 1000 elkarrizketa (300 Araban, 400 Bizkaian eta 300 Gipuzkoan), 20na inkestako 50 bide aleatorioen bitartez, eta ondoren sexu, adin eta lan egoeraren arabera kuotak erabiliz elkarrizketatuak aukeratuz. Laginaren balizko errakuntza teorikoa $\pm 3,2$ koa litzateke, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta $p=q=0,5$ delarik. Datu bilketa 2005eko azaroaren 21 eta 22 bitartean egin zen.

1000 entrevistas (300 en Araba, 400 en Bizkaia y 300 en Gipuzkoa) realizadas por teléfono a la población de 18 o más años de la CAPV a partir de 50 rutas aleatorias de 20 encuestas cada una, con selección posterior según cuotas de sexo, edad y situación laboral. El error muestral teórico hipotético sería de $\pm 3,2$ para un nivel de confianza del 95,5% y siendo $p=q=0,5$. La recogida de la información se realizó del 21 al 22 de noviembre de 2005.

Landa lana / Trabajo de campo

Gizaker, S.L., Industrialdea de Gojain, Ed. C-2., 01170 Legutiano (Araba)



IRITZIAK
